

Aldaketa MCCn

Uztailaren 31n MCC Taldearen lehendakaritzan aldaketa oso garrantzitsua gertatuko da. Orain arte Arrasateko kooperatiba taldeko presidente izan den Jesus Catania erretiratu egingo da eta Jose Maria Aldekoak hartuko du bere lekukoa. Euskal Herriko enpresarik garrantzitsuenak da MCC. 100.000 langile inguru ditu eta aurten irabaziak %10 haztea espero dute 750 milioitara ailegatu arte. Ia-ia planeta guztiko herrialdeetan dago. Duela 50 urteko sorrera xumez gerotik Taldeko arduradun nagusiek izaera ekintzailea mantendu dute.

Giza ekintza orotako akatsak akats, kooperatiba Talde honek egindako lan izugarria aitortu beharra dago. Onartu beharreko elementurik garrantzitsuenak, dena den, hain talde indartsu eta boteretsua izanda ere, dakigunez behintzat, sekula bere baitan eskandalu ekonomiko-finantzierorik gertatu ez izana da. Taldearen agintari gorenak sekula ez dituzte poltsikoak diruz gainezka eduki. Eta beti ezaugarritzat izan dituzte diskrezioa eta zintzotasuna. Orain, MCCko lehendakaritzako aldaketa horrekin, identitate ikur horiek mantentzea eta hobetzea ere espero dugu. Iragarritako proiektu industrial eta jarduera berri horiek zehazten joatea eta osasuna, energia berriztagarriak edota trenarena bezalako sektore berrietan txertatzea nahiko genuke. Horrek guztiak Euskal Herriko enpleguaren etorkizunari on egingo lioke. MCCk aitorten soziala merezi du. Gurea badu behintzat.

Juan Mari Arregi

EAEko hamabost barrutietan izango dira euskarazko telebistak

EUSKO JAURLARITZAK lurreko telebista digitaleko lizentzien banaketa egin berri du eta barruti bakoitzeko banatu dituen lau baimenetatik bat Hamaika Telebistak lortu du. Beraz, hamabost euskarazko telebista kate izango dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Telebista batzuen kasuan –Hamaika taldeko batzuen kasuan, adibidez– behin behineko baimenak eman ditu Jaurlaritzak. Telebista bateko akziodun batek ezin izango du barruti edo eskualde bereko beste kate batean parte-hartze adierazgarririk izan, eta arazo tekniko horiek zuzendu arte ez dute behin betiko baimena lortuko.

Haur guaraniak euskara ikasten

ESTEBE ORMAZABAL, Brasilgo Sao Pauloko Eusko Alkartasuna Euskal Etxeko kideak eman du guaranien berri www.sustatu.com-en. Brasilgo hiriburuko Jabaquara auzoan dagoen Tekoa Pyau herrixkan haurrak tupi guarania hizkuntza ikasten eta beren kultura mantentzen saiatzen dira. Era berean, euskara eta gure kultura ezagutzen ari dira, horrek –Estebe Ormazabalek dioenez– guarani bezala bizitzeko jarraitzeko indarra ematen die.

Tourrari eskaerak

FRANTZIAKO TOURRA hilaren 25ean Euskal Herriko pasako dela-eta, Behatokiak, Euskal Konfederazioak eta Kebenko elkarteak bozgorailuko mezuetan eta bide seinaleetan euskararen presentzia bermatzeko eskatu diete lasterketak zeharkatuko dituen herrietako udalei, Tourraren antolatzaileei eta beste hainbat instituziori. Erronkari Iboxako Batzar Nagusiak eta Zuberoako herriko etxe batzuek onartu dute eskaera. Tourraren antolatzaileek ordea ez dute erantzunik eman eta Euskararen Erakunde Publikoak esan du ez duela merezi ezer berezirik egitea, “etapa Euskal Herrian hasi edo bukatuko ez delako”.

EAE-ANVren eskaera Araban

EAE-ANV alderdiak Arabako Biltzar Nagusietan euskara arloko batzorde bat eratzea eta Foru Aldundian Euskara Saila sortzea proposatu du.

UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20 • 20003 DONOSTIA
Tel: 943423424 • Fax: 943 424 424 • urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com

Alternantziaren porrota, oposizioaren aukera

ABUZTUAREN 18ra arteko tartea dago Nafarroako Gobernua osatzeko, baina denak adierazten du hori baino lehen eratu delako. Oihalaren atzean antzematen dira UPN eta PSNren itzalak, Fernando Puras Miguel Sanzi aginte makila eskaintzen, gutxieneko akordioarekin Corellakoak lasai goberna dezan.

UPN pozarren eta PSN, UGT eta CC00ko zuzendaritzak ere pozik. Finean, azken 25 urteetan Nafarroan errepikatu den eskema da. Nafarroako PSN apurka hondoratzen ari den joko. Deskribatutako ubide beretik abiatuko dira abuztuaren 18ra arteko Nafarroako politikaren urak. Seguruenik, zeren eta izandako joan-etorriekin azken unera arte ezin baita ezer segurtatu ehuneko ehunean.

PSNren jarrera da ulertzeko gaitzena. Ez da ulertzen erakutsitako noraezetik zer etekin ateratzea espero zuten Puras eta Chivitek. Ez da zentzuzkoa pentsatzea NaBairi horren gutxi eskainita, honek amuari kosk egingo zionik; are gutxiago, negoziazioan zehar Iruñea eta beste zenbait udal garrantzitsu eta Legebiltzarreko Lehendakaritza galduta. Sinesgarriagoa da pentsatzea Ferrazek aginduta PSNk hasieratik jokatu duela akordiorik izango ez zela jakinik. Horrexegatik ez da aisa ulertzen horrenbeste itzuliren mesedea non den.

PSNren baitan izango den erantzunari so dago jende asko orain, baina joan den astean Nafarroako zuzendaritzan gertatutakoak, egoera nahiko kontrolpean dagoela aditzera ematen du. Zuzendaritza Batzordeak orain denbo-



ra pixka bat hartuko du Eskualde Batzordea deitu aurretik, herriz herri azalpenak eman eta kongresu arteko organo gorena bildu aurretik egoera baretu eta barne desadostasuna desaktibatzen. Ekaitza baretzea lortuta, hala ere, jasandako higadura saihestezina da dagoeneko.

NA-BAI DA 50 eguneko negoziazio luze horietan PSNrekin eskuz esku aritu dena eta berak ere izango du erantzukizunik gertatutako guztian, nagusiki negoziazioen luzamenduan. Orain badirudi hasieratik argi zegoela PSNk egin behar zuena, Purasen negoziazio taldeak inongo unetan ez duela koalizio gobernua osatzeko jarrera ona erakutsi. Baina ez da hori NaBaik gizarteari helarazi diona, behin baino gehiagotan negoziazioen abiada ona saldu baitu, une askotan akordioa lortzeaz zegoela sinetsiz edo hori gizarteratuz bederen. Gobernu berria osatzeko ahaleginean, Zabaletak gidatu duen negoziazio taldeak asko eman duela argi geratu da, ahalegin guztiak egin dituela ere bai eta batzuentzat gehiagi akaso. Hauteskunde hauen goreneko helburua UPN boteretik kanporatzea zen eta seguruenik porrot egin

da alde horretatik. Baina NaBai posizio onean gelditu da etorkizunari begira, oposizio instituzionalaren kudeaketa txukuna egiten badu, Nafarroan, UPNren gobernua nahi ez duen gehiengo horretan arrantzatzeko asko duelako. Aldaketa gobernu alternantzia baino askoz gehiago da Nafarroan, baina aldaketa horri apurka ekiten du gobernu aldaketa ezinbestekoa da.

NaBai urruti dago oraindik UPNren gehiengotik, nekez pentsa liteke aldaketa buruz buruko lehiaketatik etor daitekeenik; hainbat sektore politikoren aliantzatik etorriko da aldaketa, edo ez da etorriko.

JOSU JON IMAZEK gauzak bere lekuan jarri ditu artikulu entzute-tsuarekin eta seguruenik bere hausnarketa 'pertsonalak' lortu du bere helburua alde horretatik. EAJren baitan dauden iritzi korronteen isla dira Iñaki Gerenabarrena jeltzale arabarrak egindako adierazpenak, alegia Imazekin ados dagoela zenbait gauzatan eta bestetan ez. Artikulua EA eta Ezker Batuari zuzendua zegoela, hori izan da Imazen ñabardura garrantzitsuena. Baina egoera politiko orokorrak –bake prozesuaren porrota– eta EAJren egoerak –barne hauteskundeak– Imaz helburu horretatik harago ari zela pentsarazten dute.

ETA-REN atentatu saioek bere fruitua izango dute lehenago edo geroago. Atentatuen izaera erakutsiko digu orain hondoratu den negoziazio prozesuak epe ertainean aurrera ateratzeko duen aukeraz.